

# *Euskaltzaindi-ko solas-aldiak*

ANTONIO ARRUE

## *Gerriko*

Jaun-andreak:

Nere lengo emengo itzalditxoan, Juan Bautista Agirre gipuzkoar apaizaren euskal-lanetaz mintzatu nintzan.

Gaurkorako, beste gipuzkoar apaiz baten euskal-lanak, Jose Iñazio Gerriko'renak, aukeratu ditut gaitzat.

Baten batek esango du bear bada bere artean: Badirudi, sekulan euskeraren alde ez dala iñortxo ere sailtu, pralle ta apaiz batzuek balzik. Ea berok, eleizgizonak, euskeraren galeraren errudun nagusienak ez ote diran gero...

Ez dira gaur goizekoak esamesa auek. Orain ogei ta amar-bat urte, Eguzkiza zanak, auzi oni buruz onela zion:

“Orain zorionez euskaltzaleak agitz ugaritu zaizkigun egun oietan, euskara guk apezok galdu degula anitzek diote. Aspaldi ontan apezan aurka egindako salakuntza ori maiz irakurri dut, eta egia errateko, irakurri dudan bakoitzean, agitz aserratu naiz. Kaskariñ oiek zer ari dira?, erraten nuan nere baitan. Euskara guk apezok galdu dugula?, baña erradazute: oraiñ arte apezak izan ezik, euskaraz nork idatzi du? Euskararen alde lan-egin duten bertze jaun oiek, non dira? Beren euskerazko lan ederrak, non daude? Betoz gizon agurgarri oiek; beren buruak erakus bitzate ta guk apezok, bekaitzik gabe, guziei ta bakoitzari buru-gañetan erifiotz-burestuna ipiñiren diegu”.

Ta gañeratzen zuan:

“Baña gure aurretiko euskal idazlerik bikañenak, Axular eta Mendiburu, *Gerriko* ta Agirre, Añibarro ta Mogel, apezak ez al-ziran? Bai, noski. Eta gure izkuntza zar ontan oien idaztiak baño ederragorik, nork egin du? Guk dakigula, iñork ere ez. Au oroituz, erraten nuan: euskeraren galtzea apezzen obena, nola izan daiteke?”

Oneraño Eguzkiza'ren itzak.

Ezin uka, eleizgizonak, erabat gutxi-asko izan dutela erru euskeraren amilkeran.

Ezagunak dira, Aita Larramendi'k sermolari batzuei bere liburuetan egozten dizkien eraso gogorrak, Aita Mendiburu'ri zuzendu zion ezkutitz batean arritu ere egiten zala, zion, nola sermolari batzuek pulpitutik beera bultzaka botatzen etzituzten.

Ez aín ezagunak baña, gogoangarriak dira Markina'ko Prai Bartolome'k bere Ikasikizunen Berba-aurrean ezartzen dituan itz batzuek ere: “Geuk Eleisa-gizonok berba askotan naastu ta ezaindu dogu Euskeria. Geuri entzunda dakixez baserrixetakuak Jaungoiko Omnipotentia, Poderosua, Virjiña Clementisima, Miserikordixosia, Mandamentubak, Absolvizinoya, Doloria, Errestituzinoya... ta beste berba euskalgaistoko asko. Erdera ezdakixen euskaldunak, euren etxetan ta artu emonetan biar daben guztia esaten dabe euskera garbian. Kristinautzako ikasixan dira euskaldun gaiztuak. Ez da au euskeriaren erruba, ez bada geuria”.

Ta Aita Ubillos'ek, bere Kristau-Dotriñaren Itzaurrean, “barbarismoa” ta “solecismo” zer diran argi ta garbi agertu ondoren, *jost* onelako entzuten degu euskerazko sermoyetan!, oiú egiten du.

Egia esan, euskerari dakoizan gai auetan ezezik, bestelakoetan ere euskaldunoi, Erliño-zale porrokatuak gelenok izan arren, gogoko izan zaigu beti, eleizgizonak, erdi txantzetan eta pola-bolan bederik pittiñ bat astintzea.

Adibide bat. Lope de Isasti'k, orain irureun urte ta geiago idatzi zuan bere *Compendio Historial de Guipuzcoa*'n dio, Terranova'ko basatiak, aara Euskalerritik arrantzara joaten ziran mariñelek: “*nola zaudete*” esanez agurtzen zituenean, euskal-mariñelengandik ikasita noski, ta buruz eta zer zioten etzekiela, “*apaizak obeto*”, erantzuten zutela.

Len aitaturtako Prai Bartolome'k gai onez asarre ta zakar-samar mintzatze zaigu. Entzun bestela:

“Abate baten edo pralle baten palta bat, guzurrezkua edo egixazkua entzuten badabe, guztiak sarian sartuten ditube, ez dautse partakuten euren miin gaiztuagaz, ez zaarri ta ez gazteri, ez sendori ta ez argali. Eleisako Estadubaren contra, Eleisa-gizonen contra dira tiro guztiak denpora desdixau onetan. Sospetxako ta eritxiko paltak,

Sazerdotenak izan ezkeru, salduten dira ta erosten dira pozik egixazkotzat. Destajuzkuak, zuzentzat. Ta agirikorik ezbadauka, intenzi noya izango dau txarra. Asko da Eleisa gizona izaitia, *paltsua* edo gaistua izateko munduko askoren miinian”.

Ta bukatzen du bere “erretolika” au, ateraldi berezi ta biribill batez:

“Orain esaten dodan au beraugaiti, pensauko dozue askok neure ondria *jasotendala*. Bada jakin biar dozu *naguan lekuban nagualako* ta alan berba egitia zeuben arimen *kalte* andixan dalako, ta Eleisagizonen ondra ona, onan erabilli ezdagizun esaten deutsudala. *Bestelan...* zuben esanak pena andirik emoten ez deustee”. Bañan goazen arira.

Nere uste apalez, Eguskiza euskaltzaiñak berak eman zuan, eztabaida ta inkimako ontan, azken epaia, itz on-egoki auen bidez:

“Burua argi baño odola biziago duten euskaltzale gazte, bero ta kartsu oiek, euskeraren galtze ortan apezak ere beren obena badutela erran balute, beren iritzia zuzena izanen zan eta ontzat artuko nuan, baño apezak baizik bertzek obenik ez duala, oben oro apezena bakarrik izan dala adierazi nai izan dute, ta ori bere senean dagoan gizonek ezin zuzenetsi dezake. Euskeraren galtzean *euskaldun guziak* apezak ere bai, *orok* beren obena dute”.

Jose Inazio Gerriko, Segura'n, milla ta zazpireun da berrogeigarren urtean jaio zan.

Bere aita Markos Gerriko, Seguran bertakoa zan, eta ama, Anastasia Enatarriaga berriz, Mutiloa'koa. Dirudienez, aitaren aurrekoak ere mutiolarrak izan bear zuten, iñolaz ere.

Amaren deitura oker ezartzen da Gerriko beraren Sayakeraren Itzaurrean. Ez baita Enalarriaga, baizik, len esan bezela, *Enatarriaga*.

Itzaurre ortan bertan beste utsegite bat ere badator, Gerriko Ilbeltzaren lauean jaio bai-zan, ta ez, an esaten danez, bostean.

Gure Gerriko au, amairu-amalau-bat urte zituala, ta Segura'n bertan latifña ta beste zertxobait ikasita gero, Madrid'a joan zan, bere osaba Jose Enatarriaga, Oñati'ko Kondearen “archivo” zayaren etxera.

Madrid'en, ta Ataundar Felipe Altolaquirre ta beste aundizki batzuen laguntzaz, Pilosofia ta Teologia ikasi zituan. Ta, milla ta zazpireun da irurogei ta bigarren urtean, Mutiloa'ko Elizako Benefeciadu Telleria jauna ill zala jakin zuanean, ta beraren oñordeko izan zitekela-edo bururaturik, itzuli zan Gipuzkoara, egin zan berealaxen Apaiz eta, Telleria zanak utsik utzitako eleiz-aulki az legez eta bidez jabetu ondoren, bere asaben jaioterrian Elizondo deritzan etxean jarraitu ta igaro zuan bizitza guztia ill arteraño.

Bost Erretore propio ta iru ordezko ezagutu zituan bere apaizgo urtetan Mutiloa'n. Azkenekoa Jose Felix Amundarain, Zegamarra. Bi utsune-alditan bera ere izan zan Erretore ordezko.

Izan zituan beste kargu ta erri aundigoetara aldatzeko egokiera onak, baña aintzakotzat ere etzituan egundaño artu, eta antxen, larogei ta lau urte zituala milla ta zortzireun da ogei ta laugarren urtean, berak ainbeste maite zuan Mutiloa'ko Elizaren babesean erioztaren azken loak artu zuan.

Iru-bat urte lenago, Segura'ko eskribau Jose Manuel Aramburu'ren aurrean egiña zan testamentua. Azken-nai artan, Elizondo etxea bere baratzarekin Azkoiti-ko Jose Antonio Arrue'ri utzi zion, eta egun da gelago Meza, Mutiloa'n bertan, Arantzazu'n da Lazkao'n bere animaren alde ateratzeko, agindu zituan.

Buruz azkarra, jakinduri agirikoa, onbidetsua, *etorri aundiko iztuna* ta euskaltzale benetakoa, Gerriko Gipuzkoa guzian txit ezaguna ta maitea izandu zan.

Euskerazko, edo euskarazko, berak zionez, lan bat utzi zigun, bi liburuetan zatitua ta milla ta zortzireun da bostgarren urtean, gutxi gora bera antolatua: "Cristau Dotriñaren Guztiaren esplicacioaren sayakera", *ensayo* gazteleraz, orobat berak zionez.

Baña, milla ta zortzireun da berrogei ta zortzigarren urte arte etzan argitaratu lan au. Beraz, Gerriko'k etzuan ikusi moldezko le-tretan ez alegin guztiak egin etzitualako-baño.

Dirua bear eta nork aurreratu ezin iñon arkitu; baimena bein da berriz eskatu ta, beti itxaropen onak, baña beñere eltzen ez; dirua ta baimena erdi-eskuratutakoan berriz, lan guzia erderara aldatzeko agindua... Betliko kontuak! Orrela jarraitu zituan Don Jose Inazio gizarajoak bere azken-urteak.

Ta, nolakoa ote degu bada bere lan au? Orixe'k orain ogeita zortzi bat urte inguru, "Euskal-Esnalean" argitaratu zuan Euskal-Literaturaren Edesti laburrean, aitatu ere ez du egiten. Berdiñ Azkue'k bere Morfologia Vasca'n, baña, egia esan, onek bere Iztegi ezagunean ezartzen ditu lan ortatik aukeratutako adibide bat edo beste. Aitzitik, ikusi dezute Ekuskiza euskaltzaiñak antziñako dozenerdibat euskal-idazle onenetakoen artean ipintzen duala Gerriko. Ta Luis Elizalde, euskaltzaiña berau ere, oraindik urrutirago dijoakigu.

Gauza jakiña da, alegia, Elizalde'k etzituela oso gogoko euskal-idazle zar edo klasikoak. Bere aburuz, eskribatzalle aien eskuetan, euskera bizirik gabeko gauza astun bat baizik-edo ez omen zan-da.

Baña, alaz guziaz ere entzun, baña ondo entzun ordea, Sayakera'ren Egilleaz diona: "Erdera-pean, bajo el erdera... han vivido los clásicos todos de nuestra literatura, desde Leizarraga de Berkoitze

hasta Aguirre el de 1800, y desde Axular hasta Iztueta; hagamos, sin embargo, la excepción del insigne P. Mendiburu, y quizás las de Guerrero y Moguel”.

Beraz, Orixe'k eta Azkue'k ez-ikusi bezala egin eta Eguskiza'k eta batez ere Elizalde'k, berriz, goienetako mallara jaso... ¡Au da katramilla, au!

Dana dala, Gerriko'ren euskerak azterketa arin bat bederik mezezi duala beintzat nik uste, ta besterik gabe, bere Sayakerari begiralditxo bat ematera nijoakizute.

Lendabizi, bere Sayakera'n nabarmenkiro agertzen zaiguna, erabateko akats bat da: *erderazko itzen ugaritasun geiegia*.

Gerriko'ren gizaldian akats oni etzitzaion ajolik ematen. Geroxeago, bai noski.

Gipuzkoa'ko apaizen batzar nagusiak, milla ta zortzireun da berrogei ta amabost-garren urtean artutako erabaki bat beteaz, argitaratu zan “Dotriñaren Sarreran” itz auek ezartzen dira: “Irakurle euskalduna: Dotriñako liburutxo au irikitzean, ez dezazula uste ez dan gauzaren bat. Zuk aurtasunetik ikasi zenduan dotriña bera da. Lengo liburutxoan *erdaraz zeuden itz asko euskaraz ipintzea*, eta an denborarekin gertatu diran utsegiteak zuzentzea, orra zertara datorren zure onerako eskeintzen zatzun lan berri au”. Ni ez naute geiegi erderakeriak izutzen, baña, nolana ere, ezin uka Gerriko'ren akats au agirikoa dala.

Ona emen itzetik ortzera erabiltzen dituan “erderakada” batzuek. Ale galantak gañera.

Composizioa, sensualidadea, indifirentea... Permititu, conceditu komunikatu, atribuitu... Espiritu celestiala, milagro ciertua, desengaño clarua, amoriyo consustanciala, modu sencillo ta naturala, pueblo eskojitua, gure Salvadore ta Erredentore divinoa... Alaz guziaz ere, jamaika euskerazko itz jator eta eder arkitzen dira bere liburuetan!...

Batzuek, antzin-antziñakoak: bikor —gazteleraz, grano, simiente—, ekosari —verdura, legumbre—, ostrilakea, arazeri, antxitian, antxitik antxitikoa, bitu, biribillatu —gazteleraz, guardar—, eskura... (Azkue'ren Iztegian badator eskura itz au. Dio: *Eskura*, cómodamente, manuscritos de Londres. Urruti-xamar joan zitzaigula itz onen billa Azkue aundia, derizkiogu.)

Beste batzuek, gaur galdu-samarrak: berariaz, ateleka, eratzan edo eratzatu —acostar— kuma, zoru —suelo—, sistoki —muladar— (Andoaiñ-en, orain urte gutxi dirala, ijito-etxola zar eta zikiñ bat “sistoki” izenez ezagutzen zan, oker ezpanago), sukar, abiadura, alabaña (Gerriko'ren izkeran, Juan Bautista Aguirre'renean bezelaxe,

alabaña itz onek gaztelerazko “pues”, ta ez “empero”, esan nai du)... Badatozte beste itz zar batzuk ere, gaurko esan-guraz erabilliak: ausnartu —considerar, berez rumiar—, bidenabar —de paso—... Baskan batzuek ere bai Gerriko'k berak asmatuak iñolaz ere: gogarki, —inspiración—, antzorde —comparación—...

Baita tarteka Segura-aldeko berezi bat edo beste ere: eskuargiro —generalmente—, imi —cuartal de fanega—, beanzagi —levadura—. Beste euskalgietakoak ere bai noski, batez ere Bizkaiera'koak. Ona itz orietako batzuek:

*Napar-aldekoak*: agitz, beatztopa, aldioro...

*Lapurdi-aldekoak*: aginitz edo anitz, oro, gaiztagin —malhechor—, txartal eta sarrepetita edo larrepetita, langosta. (Bahr'en ustez larrepetita au, larrapitika'ren aldakuntza omen da, “petit” prantsez —itzaren menpean sortutakoa, noski.)

*Bizkai-aldekoak*: jaramon, bage, narru, arda, lapiko, azau —gavilla— imillaun, larregi, edolarik, geurok, zeurok, zeuron, zeurontzat, zerren, iregi, ipinten, erorten, ekarten, erakarten, erabilten, irakorten... Aztertu ditzagun itz auetako batzuek:

*Geurok*: Egia esan, Gerriko'ren Sayakera'n ez “geurok”, baizik “geurk” ezartzen da. Baña bere lenengo liburuaren okerren Zuzenbidean, “geurk” au utsegite bat dala, ta bere orde z “geurok” irakurri bear degula, oartzen da. Bañan ziur eztakigu Gerriko'k “geurok” esan nai izan zuan edo ez.

Egia da, guretzat beintzat, “geurk” itza ezezaguna dala, baña ez degu aztu bear, ordea, bai Decheparek eta bai Axularrek, beronen antzeko itz batzuek erabiltzen zituztela: *guaurk*, *zeurk* eta abar.

*Zeurok*.—Bizkai'ko euskalgikoa, noski Aezkan ere erabiltzen dana edo zana beintzat, bear bada. Gaurko idazle batzuek ere, Orixe'k esate baterako, erabiltzen dute.

Etxaide'k dio, Bizkalan, Arratia'n, Orozko'n eta Txorierri'n entzuten dala “zeurok” itz au.

Azkue'k berriz dio: “Con más lógica en varias comarcas de Vizcaya dicen por “vosotros”, no *zuek*, sino *zuok*; en Barambio, *zurok*. También en Leizarraga se lee “*etiezue zeurok, yatera*”, dadle de comer vosotros mismos”.

Oraingo ontan ere urruti-joan zitzaigun Azkue jauna erakusgarri billa.

*Zerren*: Bizkai'koa itz au ere. Gaur ia zero baztertua, ta ondo baztertua, iñolaz ere. Gerriko'k aldiz-aldiz bakarrik erabiltzen du. Zerren onen orde z, guziok dakizutenez, Gipuzkoa'n eta Lapurdi'n “zeren” erabiltzen zan. Axularre'k berak “zeren” au gogoko zuan. Geiegi, nere uste apalez.

*Ipinten, erorten, ekarten* eta abar. Azkue'k dio: "La *tze*, producto de *tu mas te*, ha usurpado en Guipúzcoa y en varias zonas de dialectos limitrofes el puesto de *te* tras otras finales de infinitivo."

Ala bada ezpada, *te* orrek Bizkai-usaia beregan daramala, iñork ezin uka.

Egia da, "*zeurok*" ez beste itz oriek, gutxitan erabiltzen dituala Gerriko'k, baña ala ere euskalgi guzietako itz-nasketa au, arrigarri-samarra da. Orduan euskal-irakurle geienak beñepein, ez-baituztzen ulertzen nor bere euskalgi bereziko itzak baizik.

Ona zer zion Gregorio Arrue'k Tolosa'n milla ta zortzireun da larogei ta irugarren urtean argitaratu zuan Aita Mendiburu'ren "Jesusen Biotzaren Debozioa"-ren Itzaurrean:

"Liburu au ezta nereea, ezpada Jesusen Compañiako Aita Sebastian Mendiburuk milla ta zazpireun da berrogeita amaika-garren urtean argitara emana; baña nola batetik Aita ark *Nafareuskeran* atera baitzuen, eta beragatik *emengo euskaldun geyenai aditzen etzaen*, eta bestetik liburu ayetakorik bat edo beste ozta arkitzen dan, artu det joya eder au Gipuzkoako gure euskera garbiyan emengo guziak *erraz adiko duten eran* ipintzearen lan au."

Baña goazen aurrera.

Euskal-sufijo jator geienak ere egoki erabiltzen ditu Gerriko'k.

Ona emen erakusgarri banaka batzuk.

*Ekiko*.—Sufijo au gogoko du Gerriko'k. Nork esan... aren kari-dade guttiz irazekia bere Aitarekiko eta gurekiko?

*Ok*.—Baita au ere: *geurok, zeurok, Kristauok, batzuok, besteok*, aldezenok... Bein batez dio: *Batzuok* zuen artean esango dezue... Gerriko'ren Sayakeran eta Mikoleta'ren "Modo breve de aprender la lengua Vizcaína"-n, ez izanik, ez degu iñon "batzuok" au guk irakurri.

*Ro*.—Maiz erabiltzen du sufijo au ere. Gauza jakiña da batzuek sufijo au, *oro* itzetik datorrela, diotela, ta beste batzuek berriz ezetz. Ona Gerriko'ren adibide-mordoska bat: orduoro, goizoro, egunoro, urteoro, aldioro, jaioro, instanteoro ta baita osoro ta zeoro ere.

*Gan*.—Orobat, au ere. Nigan, gugan, onegan, argan, beragan, Jesu-Kristogan, jabeagan... Bere Sayakera'ko orrialde batean onela dio: "Esan zien Pilatosek: Gizon *onegan* kulparik bat ere arkitzen ez det". Are geiago: Gerriko'k sufijo au erabiltzen du noiz edo noiz beste berarizko gisa batzuetara ere. Entzun: Artzeko aundi bat *Gabelo'gan* zeukana kobratu zion. Isaakek zenbat ume izan zituan Rebeka'gan? Abraani Jaungoikoak eman zion promisioko semea, zein izan zan? Isaak Santuak bere emazte *Sara'gan* luzaro anzu egon ezkerero eta larogeita amar urte ezkerero, izan zuena.

Ondo esana, gaizki esana?

Baña Gerriko'k ongiena erabiltzen duan euskal-sufijoa, *zeta*, *zaz*, *taz* edo *tzaz* da *in*olaz ere. Beste gipuzkoar idazle zarrak, Mendiburu aundia bera tartean dala, ezbezela, apika, nere iritzi apalez. Entzun arretaz: *Iltzez* josi. *Limosnaz* bizi. *Zorionaz* gozatu. *Zuzaz* ondo baliatu. *Aezaz* itzegiten egon. Bere *lagunaz* erruki izan. Besteren *gai-tzaz* atsegin artu. *Arzaz* berriz konfesatu. Gizon *arzaz* zer egin. *Matrimonioaz* usatu gabe egon. *Orazioaz* armaturik. Jaungoikoaren *itzaz* indarturik. Jakinduri *arroaz* itxuturik. Guziak Espiritu *Santuz* beterik. *Nizaz* itzegiten zuten profeziak. *Salbazioaz* etsitzea, *Infernura* jaitxitzea da. Ikusi dezagun tentazioaren *izenaz* zer aditzen degun. Zer izango zan munduko gizakume eta emakume *guzieaz*? Nor arritzen ez da humiltasun *onezaz*? Ezta gizona *ogiaz* bakarrik bizi, baizik Jaungoikoaren aotik datorren itz *guziaz*. Ez degu lotsatu bear Jesu-Kristoren *Gurutzeaz*. Eztegu ansiarik bear *gerokoaz*. Munduko gauzen ansia gabe, *egunerokoaz* kontentatu. Etziran luz *arzaz* jabetu. *Sodoma erriaz* jabetu zan. Zori gaiztokoak *Jaungoikoaz* azturik eta *munduz* zoraturik bizi diran Kristau nagi-alperrak. Espiritu Santuak bere *etorreraz* egin zituan mirari arrigarriak. Amabost *besoz* gorago urak altxatu ziran. Ezpata-kolpe *batez* belarria kendu zion. Moisesek Jaunaren *ordenaz* bere *zigorraz* aitz bat jo zuen. Arkumearen *odolaz* seinalaturik zeuden Israeldarren etxeak. Artu zuen Moisesek hisopo bat eta sacrificiotako *odolaz* busti zuen, eta abar ta abar.

Gañerakoz, euskal-aditza, berboa, esate baterako, gaur dan egunean ere idazle gutxik erabiltzen dute Gerriko'k bezain *tajuz*.

Aukeratu dezagun erakus-bide bat. Edozeiñ. Ona: "Nere ondoren inork etorri nai badu, uka beza bere burua, arbeza bere gurutzea eta niri jarrai bekik." Beste bat: "Iturrira dijoanak ontzi txikia badarama, eta bakan badijoa, ur gutxi artzen du, eta ontzi andia badarama, eta sarri badijoa, ur asko artzen du, eta zembat ontzi andiagoa daraman anbat ur gelago etxera dakar."

Makiña-bat euskal-aditz-joko zar da labor, bizi ta egokiren adibide eder badakarzkigu Gerriko'k bere Sayakera'n: dakus, zeku'en, darraio, darraie, narraiola, garraio, garraizkon, garraizkiola, gakizkon, zerraizten, demagun, bazeritzon, erasaten, daraustena, ta abar.

Esan bearrik ez daukagu noski, Gerriko'k iaio josten duala euskeraz. Baña naiz joskera ta naiz idaztankera —idaztankera batez ere—, "desberdiñak" eta goora-beera aundikoak ditu, Juan Bautista Agirre ta Lardizabal'enak, esate baterako, ez dira jatorragoak izango bear bada, baña bai beintzat ardura gelagoz landuak.

Bestalde, badiu Gerriko'k luze-antzeko lan-zati enas-arroak, baña baita giar eta ondo-samar ebakiak ere. Entzun: "Itxas-egalean ar-



kitzen ziran Israeldarrak; eta atzetik zerraizten Faraon eta bere ejerzitoak; estutasun arrigarri batean zeuden; eta Moisesen eta Aaronen kontra murmuratzen asi ziran, an guziak iltzera eraman zitualako; baña Moisesek alaitu zituan; itxasoko ura bere eskuaz zuitu zuen, eta bat-batean urak alde bitara partitu ziran; eta itxas-zorua legorturik ikusi zuen; eta andik beste aldera igaro ziran guziak; aen ondoren sartu ziran Faraon eta bere Saoldaduak; baña Moisesek berriz urak ukitu zituan, eta lengo tokira biurtu ziran; eta urpean Faraon eta bere soldadu guziak itorik gelditu ziran.”

Baditu latz-astun-motel-samarrak ere, baña gatz-dun ariñ-antze-koak ere bai. Entzun: “Azkenik premia egiazko bage merkatutik merkatura eta tratutik tratura eta tabernatik tabernara dabilzan nekazari pobreak, ezagutu bear due, urtearen kabuan zenbat denpora alperrik galtzen duen; zenbat gastu alper egiten duen; zenbat kalte eren emazte eta umeai egiten dien; zenbat araceri eta zenbat oker datozkien erentratoetatik, eta nola komunkiro eren familiak ondantzen dituen; eren buruak galtzen dituen, eta zorigaiztoko paradero eta zazarro miserable bat izan oi duen, *lenago zorrez eta zorritz beterik itzen ezpadira.*”

Ez du ajola aundirik baño, ala ere, tira, ikutu nai nuke Gerriko-eren euskal-joskerari dagokion arlo txiki bat.

Esan izan oi da, euskeraren joskeran, “*bi numeral*”, gipuzkeraz eta bizkaieraz beintzat, nai degun bezala, izenaren aurretik edo atzetik erabili genezakela. Ta, egia esan, gipuzkoar eta bizkaitar idazleek bi era oietara erabiltzen dute.

Baña zein da zarragoa ta batez ere jatorragoa?

Bertso ta kantu zarretan geienean, izenaren atzetik erabiltzen da “*bi numeral*” au: “Bolon bat eta *bolon bi*”. “Oj bart, oi bart, zeraparia genuen bart —*usapal* bi ta eper bat”. “Begi *bik* ikuskizun bat dauke, belarri *biak* zentzun bat, usain bakarra sur-zulo *biak*”, eta abar.

Eztira oraingoxeak ere itz eta esakera auek: *erdibitu*, *ordu-biak*, *erreal-biko* txuria, urtebia, urtebi-sagarra, *egun-biz-bat*... Toponimian ere aspaldikoak dira Bidebieta, Belabieta ta beste onelako izen batzuek.

Gaur dan egunean, Orixe'n Urte Guziko Meza-bezperak deritzan liburu eder eta ezagunaren Sarrera'k, gipuzkeraz edo beintzat erdigipuzkeraz idatzia egon arren, idazpuru au darama: “*BI ITZ*”.

Aitzitik, Manuel Lekuona'k bere lantxo txit polit baten izen-burutzat itz auek ipintzen ditu: “Gerrateko Nere Amabi Kantak. Berderatzi idilio, *romanze bi* ta imno bat.”

Dana dala, ta esanak esan, gure Gerriko'k beti ta beti, ta beñere

utsegingabe —ta badakar bere Sayakera'n ia egun-bat bider— “bi numeral” au izenaren ostean ezartzen du: gauza bi, amets bi, egun bi, emazte bi, seme bi, jabe bi, usakume bi, liburu bi, zekor bi, bizitza mota bi, misterio aundi bi, Noe Patriarkaren ume on biak, arrizko losa edo ol bitan, alde bietatik, era bietakoak, *lapur biren erdian* esakera au berdin dakarkie bai Juan Bautista Aguirre'k eta baita Ubillos'ek ere—, *ill bitik ill birakoak*, eta abar.

Orain arte, euskerari ta euskal literaturari, au da, azalari baka-rrik begiraturik aztertu degu Garriko'ren lana. Baña, bere barrenak ere azterketa laburtxo bat bederik merezi duala, uste degu. Itz bi, bada bere mamiaz.

Gerriko'ren Kristau Dotriñaren Esplicacioaren Sayakera'ren gaia, jakiña, bere izenak adierazten digun bezala Kristau-Dotriña da. Testamentu zarreko ta berriko kondairatxo labur bat ere badakarki. Bere iturburu nagusia, Elizako Guraso ta beste Elijio gaietako jakintsu zarretan dago, baña geroxeago beste batzuen itzala ere, ordea, oartzen da bere Sayakera'n. San Inazio, Aita Granada ta Aita Kardaberaz'ena, batez ere. Axular'en apur bat ere, agian, bai noski. Kolera-ren erremedioetaz, Axular'ek dio: “Irugarren erremedioa, *dirakien* eltzearen, gañez egiñez doanean, gelditzeko eta beetitzeko, da *ur otza*. Hala bada, kolera-ren iraungiteko eta *sosegatzeko* ere, da itz ona, erre-puta emea eta ezta.”

Gerriko berriz onela mintzatzen da gai beroni buruz: “Itz bigun batek, eranzuera batek besteren kolera autsiko du emendatuko du, *sosegatuko* du, *ur otzak dirakian* lapikuaren gargarratea kentzen edo templatzen duan bezala”.

Beraz ziur asko, Gerriko'k ezagutzen zuan Axular'en “Gero”. Edo-ta bestela, gai ontan biak, Axular eta Gerriko'k iturburu batean edan zuten.

Moral-gaian zorrotza degu Gerriko. Ala ere, adibidez, dantza-kon-tuetan, Markina-ko Aita Bartolome'ren baño Aita Larramendi'ren gertuago dabil.

Gerriko'k dionez, karta jokuak, bola jokuak eta pelota jokuak bezala, dantzan egitea ere ez da berez pekatu, baña bai gaizki usatzen bada, ta orduan beste pekatu askoren sustraia, gañera. Prai Bartolome'k osteria dio. Ondo entzun: “Menturaz ez da Kristandade guztian dantza desonestutagorik ta lotsa gitxiagorik egiten egun argiz, euskal-errietan baño”.

Gerriko'k izan zituan jarraitzalle batzuek. Bat, arestian aitatuta-ko Mutilloa'n bertan Erretore izandutako Jose Felix Amundarain. Oraindikan Mutilloa'ko Erretore-etxean gordetzen da milla da zor-zireun da ogei ta laugarren urtean Amundarain onek argitaratzeko asmoz gertu zuan sermoi-xorta polit bat.

Irakurri ditzagun orain ainbeste bider aitatu dedan Gerriko'ren Sayakera'ko zatitxo labur bat edo beste.

Gaia: "Jose, Jakob'en semearen salmena". Tomo I, pag. 108.

Gaia: "Emplasteruak". Tomo II, pag. 210.

Bukatu degu Gerriko'ren lanaren azterketa. Nork arrazoi?

Elizalde'k eta Eguzkizak ala besteak?

Gerriko'ren eta erabat bere gizaldiko eleizgizonen euskerako liburuak ezin lezazke iñork bear bezala epaitu, aldeurretik jakiñan gañean ezpadago gauz batez: Alegia, praille, ta apaiz aiek —geienak beñepein— etzituztela euskerazko idaz-lanak literatura egiteko asmoz antolatatu, Kristau-dotriña ta erlijio gaiak erakutsi ta zabaltzearen baizik.

Ala ere, lan orietan oartzten da, orratik —jakiña beste batzuen artean— doai berezi bat, bai literaturan da bai arte ta jakin-gaietan erabat, askok bear-bearrekoa jotzen deguna: *argitasuna*.

Egia koxkor bat edo beste esango nituzke gogoz saill oni buruz, baña, sarritan, egiak mingarri baitira, ta obe izango degu noski ixiltzea, ez degu iñor mindu nai-ta.

Zergaitikbait zion, ainbeste bider itzalditxo ontan izendatu dedan Aita Bartolome, Jaungoiko aundiaren berri ezezik Jaungoiko txikiaren berri ere zekian Markina'ko Praille aserrekor arek: "Gauza bat da guzurra esatia. Ta beste bat da egixa esatia. Guzurra esatia beti da pekatu. Egixa *ez* esatia askotan da... *biarrekua*". Esanak esan, ez nituzke utzi nai, ordea, kolkoan gordeta, bein batez ez dakit non irakurri nituen itz sotil batzuek:

"Idazle apal eta prestu guziak, izkera argi, lau ta adi-erraza erabiltzen dute geienetan; indi-ollar antzeko buru-arro ta kopeta-beltzak berriz, idaztankera zaill eta illunera jotzen dute beti". Nolanai dala, ta bukatzera noa, nor danak, eta batez ere begietan lausorik gabe begiratzen badu, ezin uka iñolaz ere, antziñako euskal-idazlan-altxorren ezagüera gabetanik, ez degula euskalzaleok egundaño gauza zuzenik egingo.

Bai berriak, iriña zuri; zarrak ore ohea, dio esaera jator batek... Jaungoikoak gabon dizuela guzioi, jaun andreak, eta gaizki esanak... barkatu.